

Bizipoza

**Maider IANTZI
GOIENETXE**

Bi amatxien gonapean jostatzen ginen, eta orain umea hanka artean dugula egiten dugu pixa. Ama amatxi bihurtu da, gu ama, eta bi amatxientzat leku eder bat imajinatzen dut. Amatxi Rexuren baserrian, hatzekin jiratzuz markatzen genuen telefonoa, “listinetik” zenbaki bat aukeratuta, bromak egiteko. Amatxi Beniren pisan, bera izan arren zutabea, atean aitatxiren izen-abizenen plaka zegoen, nahiz eta hura jada hila egon. Amatxiak gogoan, harrotasuna ematen dit familiaburu gisa agertzeak, baina pare-

ko harremanak defendatzen ditut eta keinu gisa buzoian haurraren izena jarri dut lehenengo. Badakit buzoiak gainbehera doazela, baina niretzat inportanteak dira eta giltza gustukoenetakoa dut txiki hori, biratzean ilusio bat pizten zait, amatxiren telefonoarekin bezala.

Batez ere, aitarekin komentatzen ari-tzen naiz lehengo oroitzapenak eta galdetzen dugu ia jendarte bezala hobera edo okerrera goazen. Balio anitz galdu direla erraten du zenbaitetan. «Adibidez?» galdetzen diodanean, ordea, ez du bat ere aipatzen; izatekotan, denbo-

ra luzeagoa zela, egunka antolatzen genuela eta ez orduka. Eta jarraian «ez, uste dut hobeki gaudela» aitortzen du. Tarteka antzeko elkarrizketa errepikatzen dugu eta ongi sentiarazten nau.

Baikortasunak hartzen nau batzuetan, gero utzi egiten nau, baina berriro ere hartu. Olatuka bezala. Piezekin eraikuntzak egiten ari ginela, «kartzela» ulertu nion semeari eta «zer?» galdetu nion gaizki aditu izanaren esperantzaz. «Kartzela», errepikatu zidan. Min egin zidan, «bala» erran zuenean bezala. «Bizipoza» eman nahi diot, bururatzen zaidan hitzik ederrena. •

Negu gorria

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Hil beltza joan da. Behingoagatik negu-negua ekarri digun hil beltza, batzuen zorionerako eta beste batzuen depresiorako.

Lehenengoek mendiak zuri eta eder dituzte ikusten, eta negu giro gordina baliatu egiten dute inauterietan lokaztu eta gozatzeko, baita erdi larrubizi ere. Bigarrengoek, aitzitik, beltz eta ilun sentitzen dute aroa, eta hezurretatik bustia eta hotza kendu ezinik bizi dira.

Otsaila euria, elurra eta hotza egin zale da, sekulako negu gorri zalea. Nire irudiko, ilunena eta gogorrena. Hain

justu, hil honetan beteko da urtebete Errusiak Ukraina inbaditu eta guda fronteak zabaldu zirenetik.

NATOk osatzen du fronte horietako bat. Hots, Europako herrialdeak eta Ameriketako Estatu Batuak, herritarren zaindaritzaren izenean, osaba onaren papera betetzera sartu ziren gudan; lehen oin puntak bakarrik eta egun gerriraino behintzat bai, “Leopard” tankeak bidaltzearekin.

Inork uste badu tankeek bakea bizkorrago ekartzen lagunduko dutela, doala bertara, lehen lubakietara, eta barneratu beharko du guda-denbora ez duela egunetan zenbatuko, ezta hi-

labeteetan ere, baizik eta, ziurrenik, urteetan.

Nago gatazka hainbeste luzatzea ulertzeko, nobela beltz ohikoenean nola, etekinik handiena nork duen ateratzen antzeman behar dugula. Alta, largabistak Atlantikoaren beste aldera begira jarri beharko genituzkeelakoan nago.

Nahiago nuke sinetsi Zelensky azeriaren meritu baino ez direla defentsarako tankeak... Kosta behar zaigu, baina, botila erdi betetik, mendien zuri ederretik edo agian kaskagogorkeria hutsetik, pentsatu nahi dut «bihar ere aterako dela eguzkia», argia eta epela. •